

---

**AUKEAREN ZERBITZUEI BURUZKO ARAUDI NAGUSIA**  
**AUKEAko Zuzendaritza Batzordeak 1994.07.18an onartua**

---

**AURKIBIDEA**

**SARRERA**

**AUKEAREN ZERBITZUEI BURUZKO ARAUDI NAGUSIA**

**LEHEN IDAZPURUA: XEDAPEN OROKORRAK**

**BIGARREN IDAZPURUA: ERABILTZAILEEZ**

1. Atalburua: Abonatuez
2. Atalburua: Erabiltzaileez
3. Atalburua: Eskola kirolaz
4. Atalburua: Kirol talde eta kirol federazioetat
5. Atalburua: Ikastaro eta kirol kanpainaz

**HIRUGARREN IDAZPURUA: ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREZ**

**LAUGARREN IDAZPURUA: INSTALAZIOETARA SARTU ETA HAI EK ERABILTZEKO ARAU NAGUSIAK**

**BOSTGARREN IDAZPURUA: KIROLGUNEAK ERABILTZEKO ARAUEZ**

1. Atalburua: Gimnasioak erabiltzeko araez
2. Atalburua: Sauna erabiltzeko araez
3. Atalburua: Pizsinak erabiltzeko araez
4. Atalburua: Kiroldegiko pistak, squash-ak, frontoiak eta kanpoko pistak erabiltzeko araez
5. Atalburua: Rokodromoa erabiltzeko araez
6. Atalburua: Iturripeko kanpoko pistak erabiltzeko araez
7. Atalburua: Muskulazio gela erabiltzeko araez
8. Atalburua: Kirol medikuntzako zerbitzua erabiltzeko araez

**SEIGARREN IDAZPURUA: ERRESERBEI BURUZKO ARAUDIAZ**

**ZAZPIGARREN IDAZPURUA: KIROLEKOAK EZ DIREN EKINTZETARAKO  
INSTALAZIOAK ALOKATZEKO ARAUEZ**

**ZORTZIGARREN IDAZPURUA: ARAUBIDE ZEHATZAILEA**

**BEDERATZIGARREN IDAZPURUA: ERREKLAMAZIOEZ**

**AZKEN XEDAPENAK**

### **SARRERA**

Arrasateko Udalak, Erregimen Lokaleko Oinarrien Lege Araztearen 85. artikuluan ezarritakoaren babesean, ARRASATEKO UDALEKO KIROLO ERAKUNDE AUTONOMOA (AUKEA) sortzen du, eta bere Estatutuak onartzen ditu 1.988ko Apirilaren 29an. Organismo hau, ondorio guztietarako, "Arrasateko Kiroldegia" Fundazio Publikoaren ordezkoa da.

AUKEA Erakunde Autonomoak bere nortasun juridikoa du eta iharduteko gaitasun osoa administratu, eskubideak lortu, kontratatu eta obligazioak beregain hartzeko, beti ere bere helburu eta xedeak lortu ahal izateko. Halaber, autonomia administratibo eta ekonomikoa ere badu, aplikaziozko zaizkion legeak aitortzen dioten neurrian.

Estatutuetan agintzen denez, AUKEA Erakunde Autonomoaren helburuak hauek izango dira:

a.- Arrasateko Kirolgintzaren garapena bizkortzea, planteiatzen diren ahaleginak eta inizatibak ikuspegi orokorrez koordinatuz.

b.- Eskol eta amateur-kirolgintza bideratu eta bultzatu.

c.- Kirolo modalitate ezberdinak praktikatu ahal izateko, herritar guztiei benetako aukera eskaintzea, helduen aktibitate fisikoa (Guztiontzako kirola) bultzatzeko arreta berezia jarritz.

## **AUKEA-REN ZERBITZUEI BURUZKO ARAUDI NAGUSIA**

(94-7-18an AUKEAko Zuzendaritza Batzordeak onartua)

### **LEHEN IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK**

#### 1. Atala

Musakola, Iturripe eta Atxabalpeko kirol-instalazioak kudeatzen dituen Herriko Erakunde Autonomoa da AUKEA (Arrasateko Udaleko Kirol Erakunde Autonomoa) eta AUKEAren Estatutuetan agertzen diren helburu hauek ditu: eskola-kirola eta zaletuen kirola bideratu eta sustatzea; benetako aukerak ematea herritar guztiei, dauden kirol-modalitateak praktikatu ahal ditzaten; eta Arrasateko kirol-jarduerak burutu daitezzen bultzatzea.

#### 2. Atala

AUKEAren Estatutuak garatzeko, Araudi hau ezarri du Erakunde Autonomoaren Zuzendaritza Batzordeak, eta hauxe du helburutzat: eskubideak, betebeharrak eta instalazioak erabili ahal izateko baldintzak arautzea, guzti hori Euskal Herriko Kultura Fisiko eta Kirolaren otsailaren 19ko 5/1988 Legearen xedapenen arabera.

#### 3. Atala

Kirolak, jolas-jarduerak eta oro har kultura fisikoa burutu eta praktikatzeko AUKEAk dituen eraikin, zelai, esparru, toki eta bulego guztiak dira Udalaren Kirol Instalazioak.

#### 4. Atala

Instalazioak erabiltzeko eskubidea dute: helburuen artean gorputz-hezkuntza eta kirola bultzatzea duten, eta AUKEA Erakunde Autonomoak urtero ontzat ematen dituen prezio publikoak ordaintzen dituzten pertsona, kirol-elkarte, talde, ikastetxe guztiek eta bestelako entitateek.

Noizean behin eta gauza zehatzetarako, kultur eta gizarte izaera duten jarduerak burutzeko ere erabili ahal izango dira instalazioak, baldin eta kasu bakoitzerako dauden baldintzak betetzen badira eta baimenik badute.

## **BIGARREN IDAZPURUA ERABILTZAILEEZ**

### 5. Atala

Bost erabiltzaile-mota bereizten dira:

1. Abonatuak.
2. Erabiltzaileak.
3. Eskola-kirola.
4. Kirol-taldeak eta kirol-federazioak.
5. Ikastaroak eta kirol-kanpainak.

### **1. ATALBURUA: Abonatuez**

### 6. Atala

a) Abonatu izaera izango du: izena ematea formalizatu eta gero, onartua izan eta karnet kreditagiriaren jabe den eta kuota guztien ordainketan egunean dagoen edozein pertsonak.

b) AUKEAren Zuzendaritza Batzordeak ezarritako kuotak ordaindu beharko dituzte abonatuek; urteko izaera izango dute kuota horiek, sartzeko eskabidea noiz egiten duten berdin diolarik.

c) Banakakoa edo familiakoa izan daiteke abonua; 20 urtetik beherako seme-alabak sartzen dira familiakoan.

d) Pertsonala eta eskualdaezina izango da abonatu karneta.

e) AUKEAn baja hartu nahi duen abonatuak Musakolako Kiroldegiko bulegoetan jakinarazi beharko du.

f) Titularra ez den beste pertsona batek erabiliz gero karneta, hilabetez kenduko zaio karneta. Horretarako, Nortasun Agiria edo antzeko agiria eskatu ahal izango du kontrol eta zaintzako pertsonalak.

g) Karneta galdu edo hondatuz gero, eta horren ondorioz beste karnet bat egin behar izanez gero, horretarako jarritako prezio publikoa ordaindu beharko da.

## 2. ATALBURUA: Erabiltzaileez

### 7. Atala

a) Abonatu izan gabe instalazioan sartzen den edozein da erabiltzailea; eta instalazioa erabiltzeko eskubidea duena, AUKEAren Zuzendaritza Batzordeak ontzat emandako tarifa ordaindu ondoren.

b) Kirol-arropaz eta instalazioak erabiltzeko asmoaz sartu beharko da instalazioan.

c) 20 urtetik gorakoentzat eta beherakoentzat, desberdinak izango dira instalaziora sartzeko kuotak.

d) Zein adin duen egiaztatzeko, Nortasun Agiria edo antzerako agiria eskatzeko eskubidea izango du pertsonal arduradunak.

e) Ordaintzea eskatzen duten instalazioetako baten bat erabili nahi duten erabiltzaileek, kopuru bat ordaindu beharko dute, lehenago ordaindutako sarrera-kuotaz aparte.

## 3. ATALBURUA: Eskola Kirolaz

### 8. Atala

a) AUKEAren kirol-instalazio eta ekipamenduek egituraren zati haundi bat erabiliko dute Arrasateko ikastetxeetan dagoen gabezia arintzeko.

b) Eskola-orduetan nagusiki Arrasateko ikastetxeen igeriketa eskolak nahiz gorputz-hezkuntzako eskolak hartuko dituzte Kiroldegiek.

c) Haien gorputz-hezkuntzako eta portaeraren irakasle arduradunak lagundurik sartuko dira eskola-taldeak instalazioetan.

d) Eskola-igeriketako promozio kanpainen kasuetan, AUKEAk jarriko du monitorea, baina taldearen portaeraren erantzukizuna instalazioetan, ikasle-taldeari laguntzen dion irakasleak izango du.

e) Urtero uztailen ezarriko zaizkie ikastetxeei instalazioak lagatzeko irizpideak eta baldintzak, AUKEA, Udala eta ikastetxeen interesak kontuan izanik.

f) Eskola-ordutegitik kanporako eskola-kirolak ere instalazioen lagapena izango du, eta eskola-kirolaren kanpaina hasi aurretik ezarriko dira urtero instalazioak erabiltzeko baldintzak.

#### 4. ATALBURUA: Kirol talde eta Kirol federazioetat

##### 9. Atala

a) Lehiaketa-kirolaren baliozko ordezkari bakarrak izango dira legez eraturako kirol-taldeak eta kirol-federazioak.

b) Udal instalazioak erabiltzeko aukera izango dute taldeek eta federazioek, haien dituzten entrenamenduak, lehiaketak eta erakustaldiak burutzeko.

c) AUKEAn abonaturik egon beharko dute AUKEAren instalazioak erabiltzen dituzten taldeen eta federazioen kirolariek.

d) Talde izaera izateko, Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazioen Erroldan eta AUKEAren Taldeen Erroldan inskribaturik egon beharko du taldeak.

e) Partidu, entrenamendu, erakustaldi, e.a.etarako, instalazioak lagatzeko eskatu beharko dute taldeek eta federazioek.

f) Entrenamenduak egin eta/edo lehiaketak burutzeko eskabideak, urte bakoitzeko maiatzaren 1etik ekainaren 30era artean egin beharko dira. Hauek jaso beharko dituzte eskabide horietan: talde edo elkartearen izena, afilizio-zenbakia, helbidea, telefonoa, arduraduna, burutu beharreko kirol-jarduera, maila, aurrirakusten diren erabiltzaileen kopurua, e.a.

Instalazioa erabiltzeko baimena eman eta gero, irailaren 30a baino lehen, izen-deiturak, jaioteguna, helbidea eta telefonoaz, erabiltzaileen zerrenda eman beharko da; bai eta AUKEAren abonatu ez den kirolari bakoitzaren bi argazki ere, instalazioaren karneta egiteko.

g) Aurkezten diren eskabideen arabera egingo dira kontzesioak, eta instalazioen ordutegi eta AUKEAren irizpide teknikoaren arabera.

Denboraldi baterako izango da baimen horren iraupena; irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era doan aldia izango da kirol-denboralditzat hartuko dena.

h) AUKEAren instalazioetan entrenatzen duten taldeek lehentasuna izango dute, mailen arabera, lehiaketa-partiduetarako pista gordetzeko.

i) Maiztasun jakineko lehiaketa ofizialetarako, taldeek eta elkarteek baietsi egin beharko dituzte jardueren ordutegi eta egunak, gutxienez ere hilabete bat lehenagotik, eta Zuzendaritzak 15 eguneko epea izango du eskabidea aztertu eta, hala badagokio, ordutegi horiek aldatzeko, aparteko jarduerengatik edo AUKEAren irizpide teknikoaren arabera.

j) AUKEAk antolatu edo baimendutako ekintzen menpe geratuko da entrenamenduetarako erabilera ematea edo ez ematea; gorabehera horren ondorioz lehendik baimendutako entrenamenduen ordutegia bertan behera utzi edo aldatu behar denean, ezin izango da erreklamaziorik aurkeztu. Dena den ere, gutxienez aste bat lehenago emango da horren berri.

k) Behar den moduko portaera izan beharko dute instalazioetan kirolari federatuek, kasu guztietan enplegatuen lanaren alde eginez. Horiekiko errespetua uneoro izan beharko da, eta haien aginduetara egon beharko da.

Errespeturik izan ez eta portaera txarra erakutsiz gero, santzioak ezar lekitzkieke taldeari eta haren taldekideei.

## 5. ATALBURUA: Ikastaro eta kirol-kanpainez

### 10. Atala

a) Abonatuek eta erabiltzaileek eskatu eta instalazioetan lekua duten kirol eta kirol-jarduera guztien ikastaro, programa eta kanpainak antolatuko ditu AUKEAK.

b) Iraupen mugatua izango dute kirol-ikastaroek, aurrez ezarritako programazioei erantzunez eta ezarritako azken helburuez.

c) Kirol Kanpainak iraupena ikasleen eboluzioaren arabera programaturik izango duten ekintzak izango dira, eta edozein ikasle sartu ahal izango da horietan, berdin diolarik zein maila duen.

d) Kanpaina edo ikastaroetako ikasleek, izena emateko orria bete beharko dute eta irakaslearen zerrendetan agertu beharko dute.

e) Urtekoa, hiruhilekoa edo hilekoa izango da ikastaroaren ordainketa, ikastaroaren iraupenaren arabera, eta ikastaroa egin baino aste bat lehenago egingo da. Ez da ezelan ere itzuliko kuota hori, aldi batez ikasleak eskolara joaterik izan ez badu ere.

f) Kirol-ekintzen programazioa nahiz horietako bakoitza emateko pertsona arduradunak, Kiroldegiko Zuzendaritzak onartu eta ontzat eman beharko ditu aldez aurretik eta AUKEAren Zuzendaritza Batzordeak berretsi beharko ditu.

g) Halaber, ikastaro edo jarduera bakoitzerako ordaindu behar den kuota, noiz burutuko den, gehienezko kopurua eta gutxienezko parte hartzaileak, izena emateko lekuak, e.a. ezarriko dira.

h) Medikuaeren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute kanpaina eta ikastaroetako ikasleek; kirola praktikatzeko baldintza fisiko egokia agertarazi beharko da ziurtagirian.

i) Arrazoi objetiboen ondorioz justifikaturik ez dagoenean ekintzekin jarraitzea, ekintzak edo ikastaroak bertan behera utzi ahal izango ditu Zuzendaritzak; hala gertatzen denean, ikastaro eta aldi horri dagozkion kuotak itzuliko dira.

## **HIRUGARREN IDAZPURUA ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARREZ**

### 11. Atala

Hauetarako eskubidea izango dute abonatu guztiek:

a) Udalaren Kirol Instalazioetara nahi duenean sartzeko, abonatu txartela aurkeztuz, ordutegiaren barruan eta jendearentzako zabalik dagoen egunetan.

b) Pizsinak, aldagelak, gimnasioak, dutxak eta takilak dohainik erabiltzeko, eta AUKEAk iritzi eta egokiro argitara ematen duenean beste zerbitzu batzuk ere erabiltzeko.

c) Kirol Ikastaro guztietan izena eman eta matrikulazioa egiteko, bete gabeko plazarik dagoenean, dagokion prezio publikoa ordainduz; abonatu ez direnen aldean, izaera murriztua izango du prezio horrek.

### 12. Atala

Abonatu ez diren banakako erabiltzaile guztiek, AUKEAren instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, dagokion prezio publikoa ordainduz, ordutegiaren barruan eta jendearentzako zabalik dagoen egunetan.

### 13. Atala

Hauetarako eskubidea izango dute AUKEAren abonatu eta erabiltzaile guztiek:



a) Bereziki dagoen araudi bakoitzaren arabera, AUKEAk eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzeko.

b) Edozein momentutan instalazioetako zerbitzuen edozein enplegatu edo arduradunen identifikazioa eskatzeko, dagozkion erreklamazioak egiteko.

c) Araudi honen ale bat eman dakion eskatzeko.

d) Indarrean dagoen legeriak edo Araudi honetan xedatutakoak aitortzen duen bestelako edozein eskubide.

#### 14. Atala

Hauek dira abonatu eta oro har erabiltzaileen betebeharrak:

a) Instalazioak erabiltzea, Araudi honetan xedatutakoaren arabera eta instalazioetako pertsonalak adierazitakoei jarraituz.

b) Instalazioak eta ekipamendua behar den bezala erabiltzea. Axolagabekeriaz edo maltzurkeriaz sortutako edozein kalte, ekintzaren arduradunaren kontura joango da.

c) Funtzionamenduaren akats, haustura, bestelako akats edo Araudi honetan xedatutako ez betetzearen berri ematea instalazioetako enplegatuei.

d) Beste erabiltzaile batzuen lehentasunezko eskubideak errespetatzea, bereziki, alde aurretik emandako ordutegiaren erreserban.

e) Ezarritako prezio publikoak dagokionean ordaintzea.

f) Instalazioetan behar den bezalako portaera izatea, enplegatuen lana erraztuz kasu guztietan. Enplegatuekiko errespetua beti izango da halabeharrezkoa, eta haiek adierazitakoei egingo zaie jaramon, behar den bezala.

g) Nortasun Agiriaren bidez identifikatzea, instalazioetan sartzeko eskatzen zaionean.

h) Indarrean dagoen legeriak edo Araudi honetan xedatutakoak aitortzen duen bestelako edozein betebeharrak.

### **LAUGARREN IDAZPURUA INSTALAZIOETARA SARTU ETA HAIK ERABILTZEKO ARAU NAGUSIAK**

## 15. Atala

a) Abonatu karneta aurkeztu eta gero edo Atezaintzan sarrera ordaindu eta gero sartu ahal izango da instalazioetan. 2 urte baino gutxiagoko umeak dohainik sartuko dira nagusiren batek lagundurik joanez gero.

Ondorioz, abonatu guztiek, edozein abono moztaren jabe izanda, instalazioetako atezantzan dagokien txartela aurkeztu beharko dute. Honela ez bada dagokion sarrerako prezio publikoa ordaiduko dute.

b) Agiri hori aurkez dadila eskatu ahal izango du instalazioko edozein enplegatuk.

c) Instalazioak erabiltzeko, baliozko objetuez ez sartzea gomendatzen da, izan ere, AUKEAk ez du ziurtatzen, gordailu-kontratu bidez, takila eta arrapalekuetan gordetzea; beraz, AUKEA ez da gauza horiek zaintzeaz arduratuko.

d) Entitate antolatzaileek izango dute ikuskizun eta lehiaketetan AUKEAren instalazioetan jendeak burutzen dituenen erantzukizuna.

e) Guztiz debekaturik dago:

1. Erretzea, jatea edo materia ezezaguneko hondakinak sortzen dituen edozein ekintza burutzea, hartarako markatutako inguruetan izan ezik.

2. Esparruan animaliak sartzea.

3. Jantzi eta erantztea aldageletatik kanpora.

4. Sexu bateko pertsonak beste sexuarentzako bakarrik gordetako tokietara sartzea.

5. Inguru kolektiboetan bilutsik dutzatzea eta gainontzeko erabiltzaileen duintasunaren kontra doazen ekintzak burutzea.

f) AUKEAren instalazioetan propaganda jarri nahi izanez gero, Zuzendaritzari eskatu beharko zaio baimena, eta Zuzendaritzak erabakiko du jarri edo ez.

Arau horiek bete ezean, instalazioetatik berehala bota eta, gainera, karneta kendu ahal izango zaie, portaera horretan berriro eroriz gero, eta AUKEAren iritzian, larritasunaren arabera.

## **BOSTGARREN IDAZPURUA KIROLGUNEAK ERABILTZEKO ARAUEZ**

### **1. ATALBURUA: Gimnasioak erabiltzeko araez**

#### 16. Atala

Kirol-oinetako eta kirol-arropaz baino ezin izango da gimnasioetara sartu, eta gomazko zolarik ez duen oinetakorik ezin izango da erabili. Horrez gain, 1 zk.ko gimnasioko tatamian ezin izango da ezelako oinetakorik erabili.

1 zk.ko gimnasioa, batez ere, AUKEA Erakunde Autonomoak antolatutako ikastaroetarako da. Beraz, ikastaro eta gainerako ekintzen beharren arabera erabiliko da.

Nahi duenak erabili ahal izango ditu bi gimnasioak, baina Zuzendaritzaren oneritzia duten ikastaro edo ekintzetako arduradunek, ekintza horiek burutzen diren bitartean, debekatu egin ahal izango diete partaide ez diren pertsoneri bertara sartzea.

Gimnasioetako materialak eta ekipamenduak behar den bezala erabili ezean, sortutako kalteak ordaintzeko zigorra jarriko da gutxienez.

Gimnasioak erabiltzeko eskubidea gordetzen du AUKEA erakunde autonomoak, egoki iritzitako edozein jardura burutzeko, behar hainbateko aurretiaz, itxi egingo dela adieraziko duelarik beti.

### **2. ATALBURUA: Sauna erabiltzeko araez**

#### 17. Atala

Sauna erabili baino lehen, Kiroldegiko atezaintzan ordaindu beharko da.

Derrigorrezkoa da txankletez ibiltzea eta saunan sartu baino lehen dutxatzea.

Halaber, sauna barruan derrigorrezkoa izango da toaila bat jartzea gorputz pean.

Ezin izango da bizarririk moztu saunan.

### 3. ATALBURUA: Piszinak erabiltzeko araeuz

#### 18. Atala

Hauxe izango da piszina klimatizatu nahiz kanpokoaren araudia:

a) Derrigorrezkoa da aldageletan, pasabideetan eta piszinetako egoteko lekuetan txankletak erabiltzea.

b) Derrigorrezkoa da piszina klimatizatuetan bainu gorro bat janztea.

c) Pisziñen esparruan sartzeko, derrigorrezkoa da aurretik dutxatzea.

d) Pisziñen esparruan ezin izango da kaleko arropaz sartu; bainu-jantziak eta toailaz bakarrik sartu ahal izango da, eta debekaturik dago poltsez, motxilez, e.a.ez sartzea, kanpoko piszinetara izan ezik, horiekin sartu ahal izango da eta.

e) Ez da onartuko gainontzeko erabiltzaileak kaltetzeko moduko ekintzarik, hala nola, jokuak, jauziak, e.a., ezta baltsak, baloiak, koltxonetak edo bestelako objektu pneumatikoak ere, monitore-sokorristaren baimenik gabe.

f) Gurasoek edo tutoreek lagundurik egon beharko dute 14 urtetik beherako erabiltzaileek; Zuzendaritza ez da arduratuko arduradunik gabe doazen adin txikikoei gerta lekizkiekeen kalteez.

g) Monitore-sokorrista, piszinako arduraduna izanik, beti errespetatu beharko da, eta piszinaan zelan jardun eta jokatu behar den harek adierazitako guztia bete beharko da.

h) Pisziñetako kaleen banaketa egingo du Zuzendaritzak, beharren arabera, eta uneoro bi kale gordeko ditu antolatutako ikastaro eta gainerako ekintzetarako.

i) Udako denboralditik kanpo, segurtasun arrazoiegatik, kanpoko pisziñetako esparruan adinez nagusiek bakarrik sartu ahal izango dira; beti ere egokitze eta mantenimendu lanak eragozten ez badira.

Piszinak erabiltzeko ahalmena gordetzen du AUKEA erakunde autonomoak, egoki iriztitako edozein jarduera edo lehiaketa burutzeko, behar hainbateko aurretiaz, horren berri emango dielarik erabiltzaileei.

### 4. ATALBURUA: Kiroldogiko pistak, squasha, frontoiak eta kanpoko pistak erabiltzeko araeuz

## 19. Atala

Musakolako nahiz Iturrieko Kiroldegietako kantxa eta frontoietara, eta squash eta pistetara, kirol-oinetako eta kirol arropaz baino ezin izango da sartu, eta ezin izango da gomazko zolarik gabeko oinetakorik erabili.

Harmailetan eta aldageletan bakarrik egon ahal izango da kaleko arropaz eta oinetakoaz.

Atezaintzan adieraziko dira edo dagozkien seinalizazioen bidez zeintzuk diren erabili beharreko aldagelak.

Kantxa eta squashtako materialak eta ekipamenduak behar ez bezala erabiliz gero, sortutako kalteak ordaintzeko zigorra jarriko da gutxienez.

Squashtan squasheko raketa eta pilotak erabili beharko dira, eta ezin izango da zola beltzeko zapatarik erabili.

Squashak, frontoiak nahiz kantxak erreserbatu ahal izango dira, Seigarren Idazpuruan adierazten den erreserba egiteko prozeduraren arabera.

## 5. ATALBURUA: Rokodromoa erabiltzeko arauak

## 20. Atala

Rokodromoa erabiltzeko, ezinbesteko baldintza izango da Mendiko Federazioaren Lizentziaren jabe izatea, eta Kiroldegiko harreraren aurkeztu beharko da.

Ezin izango da instalazioa bakarka erabili; gutxienez bi pertsonak hartu beharko dute parte, espezialitatearen segurtasun-arauen arabera.

Kirol-oinetakoez sartu beharko da derrigorrez instalazioan, eta eskalada egitean behar den bezalako oinetakoa erabili beharko da.

## 6. ATALBURUA: Iturrieko kanpoko pistak erabiltzeko arauak

## 21. Atala

Parke publikotzat hartzen dira Iturrieko kanpoko pistak; beraz, dohainekoa da horien erabilera, libre dauden guztietan.

Lehentasuna izango dute pista erreserbatu duten pertsona edo entitateek, eta halakoetan, ordaindu egin beharko dute erabiltzearen; era berean, ordaindu egin beharko da, zelaietako bateko argiak pizteko eskatzen zaionean instalazioaren arduradunari.

## 7. ATALBURUA: Muskulazio gela erabiltzeko araez

### 22. Atala

Kirol-oinetako eta arropaz joan beharko da ezinbestean muskulazio gelara.

Monitore edo arduradun batek zaindu eta bideratuko du muskulazio gela; uneoro bete beharko dira harek adierazitakoak, eta zerbitzu horretara abonatzen diren erabiltzaile guztientzat banakako entrenamendu programak burutuko ditu.

Muskulazio gela erabiltzeko, AUKEAren Zuzendaritza Batzordeak prestazio horretarako ontzat emandako prezioa ordaindu beharko da.

## 8. ATALBURUA: Kirol Medikuntzako Zerbitzua erabiltzeko araez

### 23. Atala

AUKEAk Kirol Medikuntzako Zerbitzu bat du Musakolako instalazioetan, denontzako kirolari nahiz eskola-kirol eta kirol federatuari zuzendurik dagoena.

Kirol Medikuntzako Zerbitzura jotzeko, dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da Kiroldegiko atezaintzan, lesioen kasuan errekupeazioaldia prezio horretan barne harturik.

Kirol-oinetako eta kirol-arropaz joan beharko da ezinbestean Medikuntzako Zerbitzura azterketa medikoa egin ahal izateko (praka motzak eta kamiseta); eta aldatzeko arropa eraman beharko da.

## **SEIGARREN IDAZPURUA ERRESERBEI BURUZKO ARAUDIAZ**

### 24. Atala

Hiruhilabeteko zozketakoa izango da instalazioak erreserbatzeko jarraituko den sistema. Horrela, zati hauetan zatituko da urteoro: urtarril-martxoa, apiril-ekaina, uztail-iraila eta urri-abendua.

Hiruhilabete bakoitzeko azken hamabostaldiko zapatu goiz batetan egingo da instalazioak erreserbatzeko zozketa.

Zozketa horretan bertara doazenek bakarrik hartuko dute parte, eta txanda eta talde bakoitzeko astero ordu bat bakarrik erreserbatu ahal izango da. Bigarren ordu bat erreserbatu nahi izanez gero talde batek, itxoin egin beharko du bertara joan direnak lehen aukera egiteko eta lehen itzuliko lehentasun ordenaren arabera, ordu gehiago erreserbatu ahal izango da.

Instalazio bakoitzerako zozketa desberdinak egingo dira.

AUKEAko bulegoetan edo telefonoz egin ahal izango da libre geratzen diren orduen erreserba.

### 25. Atala

Ezari diren kuotak erabilera kontzeptuan ordainduko dira eta erreserba egiten denean gauzatuko dira, bulegoan egiten bada erreserba, edo erreserba erabili baino lehen, telefonoz egiten bada, erreserbak ordaintzeko beste sistema bat ezar dezakeelarik AUKEAk.

Erreserbatutako instalazioa erabili ezean, ez da instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik salbuetsiko.

### 26. Atala

AUKEAren Zuzendaritzaren iritzian, praktikatzaileen-tzako egoera praktikaezinean edo arriskugarrian dagoenean instalazioa, erabiltzaileak aukeratu beharreko erreserba ordua aldatu ahal izango da, erreserba zeukan momentuan hala eskatzen duen guztietan.

Dagoen eskariaren arabera, asteroko eta erabiltzaileko erreserbatu beharreko gehienezko orduak mugatu ahal izango ditu Zuzendaritzak.

**ZAZPIGARREN IDAZPURUA**  
**KIROLEKOAK EZ DIREN EKINTZETARAKO**  
**INSTALAZIOAK ALOKATZEKO ARAUEZ**

27. Atala

Kultur ekintza, aparteko kirol-ikuskizun edo kirolez kanpoko ekintzetarako, instalazioak erabiltzeko erabiltzaileek izango dituzten eskubide, betebeharrak eta baldintzak normaltzea da Idazpuru honen helburua.

28. Atala

Eguneroko kirol-jarduera ez den bestelako ekintzetarako, instalazioak erabiltzeko eskubidea dute, araudi hau bete eta erabilera horri dagozkion prezio publikoak ordaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek, kirol elkarteek eta aitortutako bestelako entitateek.

29. Atala

Kirolekoak ez diren ekintzetarako, hauxe izango da instalazioak alokatzeko jarraitu beharreko prozedura:

1.- AUKEAri zuzenduta, instalazio eta egunaren erabilgaitasunerako eskabidea. Eskatzen duen enpresaren datuak zehaztu beharko ditu eskabideak (izena, helbidea, IFK, legezko ordezkaria, telefonoa...) edo eskabidea egiten duen pertsona fisiko edo elkartearen datuak. Ekintzaren helburu nagusia agertu beharko du desenkusaezinez, musika jaialdi baten kasuan kantari edo talde nagusia zein den argi eta garbi adierazirik.

2.- AUKEAren Zuzendaritza Batzordeak, edo AUKEAren Lehendakariak, eskatu den egunean baino lehen ohizko bilerarik egin ezean Zuzendaritza Batzordeak, aurkeztu den eskabideari erantzungo dio idatziz ahalik eta eperik laburrenean. Eskabidea onartuz gero, 5 eguneko epea izango du eskatzaileak fidantza moduan ezarri den kopurua uzteko, baliozkotzat hartzeko erreserba.

Fidantza epe horretan utzi ezean, deuseztaturik geratuko da erreserba, eta egun hori libre geratuko da.

3.- Ez da fidantza hori itzuliko, ekintza deuseztuz gero eskatzaileak.

Ekintza amaitu eta gero eta instalazioan kalterik ez dela izan egiaztatu ondoren, itzuli egingo da fidantza.



4.- Funtzioaren eguna baino hamabost egun lehenago, hauek egin beharko ditu sustatzaileak edo eskatzaileak:

- a) AUKEAren bulegoetatik pasatzea, instalazioa alokatzeko kontratua sinatu dadin.
- b) Instalazioaren alokairuaren prezio publikoa eskudirutan ematea, transferentzia edo bankuko taloi hitzartuaren bidez.
- c) Erantzukizun Zibileko Poliza bat aurkeztea, berariz kontraturik ekintza honetarako, bai eta poliza hori ordaintzearen errezibujustifikagiria aurkeztea ere.

5.- Ekintza hasi baino bost egun lehenago, hauek egin beharko ditu sustatzaileak edo eskatzaileak:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimenaren kopia bat entregatzea AUKEAren bulegoetan.
- b) Instalazioaren zerbitzuetako buruarekin bilera tekniko bat izatea.

6.- Bi lagapen-modalitate egongo da:

- a) Egun erdirako alokairua: eskatzen den egunaren goizeko 8,30etatik egun bereko gaueko 9ak arte.
- b) Egun osorako alokairua: eskatzen den egunaren goizeko 8,30etatik hurrengo eguneko goizeko 5ak arte.

Tarifa desberdina izango du modalitate bakoitzak, eta egun erdirako alokairurako jarritako ordutegia gaindituz gero, egun osoko alokairuari dagokion tarifa ordaindu beharko dio sustatzaile edo eskatzaileak AUKEAri.

Goian aipatutako amaiera-orduetarako, guztiz hutsik egon beharko du instalazioak eta prest garbitzeko.

7.- Sustatzailearen kontura joango dira baimen, lizentzia eta eskaeren tramiteak eta gastuak, bai eta egile eskubideak eta esparruan gauzatu beharreko ekintzarako sortzen diren estatuko, probintzia eta udalerriko zerga guztiak ordaintzea ere.

8.- AUKEAren kontura joango dira, energia elektriko, garbiketaren gastuak eta lagapenaldian instalazioko pertsonalak erabilitako orduak ordaintzea ere.

Sustatzaile edo eskatzailearen kontura joango da ekintzak sortutako bestelako edozein gastu (tablatua, aulkiak, publizitatea, zaintzako pertsonala eta takilak, e.a.).

9.- AUKEAk, bere pertsonalaren artean, arduradun bat izendatuko du ekintza edo zereginerako; ekintza burutzeko, atea ireki eta ixtea izango da haren zeregina, eta, bestalde, Sustatzailearen esanetara egongo da, ekintzan zehar sor daitezkeen larrialdiak konpontzen behar den laguntasuna emateko.

10.- Kontratututako ekintza antolatzen parte hartzen duten eta bertan den jendearen ordenaz eta jokaeraz arduratuko da sustatzailea.

11.- Instalazioetan sortutako kalteak ordaintzeko konpromisoa hartzen du sustatzaileak.

12.- Pankarta eta publizitate kartelak jarritz gero sustatzaileak, ekintza amaitutakoan kendu beharko dira.

13.- Ezin izango da esparruan sartu instalazioetako bakoitzean jarritako gehienezko ikusleen kopurua baino gehiago.

14.- AUKEAk bere instalazioak ez lagatzeko ahalmena gordetzen du, horren bidez lehenagotik emandakoren bat kaltetuz gero.

## **ZORTZIGARREN IDAZPURUA ARAUBIDE ZEHATZAILEA**

### 30. Atala

Santzioa merezi duen arau-hauslea sortzen du Araudi honetan adierazitako arauak ez betetzeak.

### 31. Atala

Behar den bezalako portaerarik ez duten pertsonak ohartarazteko, eta instalazioetatik kanporatzeko ere, ahalmena dute instalazioko arduradunek.

### 32. Atala

Hauetako santzio batzuen bidez zehatuko dira hutsegiteak:

a) Ohartaraztea.

b) Erabiltzailearen eskubidea aldi batez gabetzea.

c) Erabiltzailearen eskubidea behin-betikoz gabetzea.

Erantzukizuna aldatzen duten inguruabar astungarri, aringarri eta salbuesleak kontuan izanik balioetsiko dira hutsegite horiek, dagozkien ekintza judizialak ere burutu ahal izango direlarik, lehen aipatutako ekintzetan erantzukizun penal edo zibilak balioesten dituenean AUKEAK.

### 33. Atala

Txarto erabiltzearen ondorioz zeozer apurtu, materiala galdu ... eta bestelako edozein gauza kaltetuz gero, kasu bakoitzean ezarriko den kopuru ekonomiko batez zehatu ahal izango da.

## **BEDERATZIGARREN IDAZPURUA ERREKLAMAZIOEZ**

### 34. Atala

AUKEAren instalazioetako erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, haien eskura egongo dira Erreklamazio Orriak, instalazio bakoitzaren sarlekuan.

Edozein erabiltzailek, abonatu karneta edo, bestela, Nortasun Agiria erakutsi ondoren AUKEAren izenean hartzen duenari, erreklamazio-orriak erabili ahal izango ditu, NAren zenbakia, izen-deiturak eta helbidea agertaraziz, instalazioetako zerbitzuak behar bezala ez dabilzala ikusten duenean, eta erreklamazioa egiten duena kopia batez geratuko da.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### Lehena

Instalazioak behar bezala erabil daitezten, Araudi honetan ezarritakoa argitu, aldatu edo gauzatzeko, xedapenak edo erabakiak emateko eskubidea gordetzen du AUKEAK.

### Bigarrena

Araudi honetan agertzen ez diren balizko kasuak, hasieran AUKEAren Zuzendaritzak konponduko ditu, eta gero Zuzendaritza Batzordera pasatu ahal izango dira, kasu partikularra konpontzeko.

### Hirugarrena

Araudi hau aldatu edo derogatzeko AUKEAREN Zuzendaritza Batzordekideen hiru bostena beharko da.

Ahalik eta gehien zabaltzeko agindu den moduan argitaratuko dira Araudi honi egindako aldatzeko edo derogatzeko proposamenak eta urte bakoitzari dagozkion prezio publikoak.